EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

## 2010EKO OTSAILAREN 25EKO OSOKO BILKURAREN ERABAKIAK

**1. Mozioa, Leire Corrales Goti Euzko Abertzaleak taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, Etxepare Euskal Institutuari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\03\00\0028]**

ES eta ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

"1. Eusko Legebiltzarrak espero du ahalik eta lasterren konpondu dadila Etxepare Euskal Institutua langilez hornitzea oztopatzen ari den helegiteak dakarren arazoa.

2. Eusko Legebiltzarrak Kultura Sailari eskatzen dio, langileak hautatzeko prozesua behin betiko ebatzi arte, jarraitu dezala Etxepare Euskal Institutuari legozkiokeen jarduerak kudeatzen, euskararekin eta hizkuntza ofizial bateko zein besteko euskal kulturarekin zerikusia duten jarduerei dagokienez, eta jarraitu dezala orobat institutuaren etorkizuneko ekintzei buruzko jarduera-plana prestatzen.

3. Eusko Legebiltzarrak eskatzen du Eusko Jaurlaritzak aurkeztu dezala zentzuzko epe batean egoerari buruzko txosten bat, eta Kultura Batzordean agerraldia egin dezala aipatutako jarduera-plana azaltzeko".

## ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO EL 25 DE FEBRERO DE 2010

**1. Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D.ª Leire Corrales Goti, parlamentaria del grupo Nacionalistas Vascos, relativa al Instituto Vasco Etxepare. [09\11\03\00\0028]**

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos SV y PV.

"1. El Parlamento Vasco confía en que se resuelva lo más pronto posible el problema planteado por el recurso que compromete la dotación de personal del Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua/Basque Institute y que impide su funcionamiento.

2. El Parlamento Vasco solicita al Departamento de Cultura que, mientras no se resuelva de manera definitiva la selección de personal, siga gestionando las actividades relacionadas con el euskera y la cultura vasca en cualquiera de sus lenguas oficiales que corresponderían al Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua/Basque Institute, y preparando el plan de actuación que enmarque las acciones futuras del mismo.

3. El Parlamento Vasco solicita que el Gobierno Vasco presente en un plazo razonable un informe de situación y comparezca ante la Comisión de Cultura al objeto de exponer dicho plan de actuación".

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.parlamento.euskadi.net

**2. Mozioa, Leopoldo Barreda de los Ríos Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak aurkeztua, Administrazioa benetan erreformatzeko eta arrazionalizatzeko erabakiak hartzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\03\00\0029]**

ES, ETP eta Mistoa-UPyD taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Bidal dezala Eusko Legebiltzarrera Plan eta Jarduera Adierazgarrien Egutegia 2010eko maiatzaren 1a baino lehen.

2. Bidal diezaiola Ganberari, datorren bilkura-aldian, politika publikoen berrikuntzarako Plana, agerraldia eginez dagokion batzordearen aurrean, plan horren berri emateko.

3. Buka dezala aurten, 2010ean, 'Euskadi 2013 Estrategia' deritzona, 2011rako Aurrekontu Orokorren Proiektuan sartuz hura aplikatzearen ondorioz edo hura garatzeko egin beharreko aldaketak".

**2. Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. Leopoldo Barreda de los Ríos, parlamentario del grupo Popular Vasco, relativa a decisiones para la efectiva reforma y racionalización de la Administración. [09\11\03\00\0029]**

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos SV, PV y Mixto-UPyD

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a:

1. Remitir al Parlamento Vasco el calendario de Planes y actuaciones significativas, antes del 1 de Mayo de 2010.

2. Remitir a la Cámara, en el próximo periodo de sesiones, el Plan de Innovación de políticas públicas, compareciendo ante la Comisión correspondiente para dar cuenta del mismo.

3. Concluir en el presente año 2010 la denominada 'Estrategia Euskadi 2013', incorporando en el Proyecto de Presupuestos Generales para 2011 las modificaciones consecuencia de su aplicación o necesarias para su desarrollo".

**3. Mistoa-UPyD legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, enplegatu publikoen administrazioen arteko mugikortasunari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0163]**

ES, ETP eta Mistoa-UPyD taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

32/2010

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, legegintza-egutegian aurreikusitako Euskal Funtzio Publikoari buruzko Lege berriaren testuinguruan artikula dezala administrazioen arteko mugikortasuna, Euskal Herri Administrazioen artean, eta azter ditzala hori ahalbidetzeko bideak beste Administrazio autonomiko batzuekin eta Estatuko Administrazioarekin, giza baliabideak hobeto aprobetxatzeko".

**3. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-UPyD, relativa a la movilidad interadministrativa de los empleados públicos. [09\11\02\01\0163]**

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos SV, PV y Mixto-UPyD

32/2010

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que articule la forma de movilidad interadministrativa, entre las administraciones públicas vascas, en el marco de la nueva Ley de Función Pública Vasca, prevista en el calendario legislativo y estudie los cauces para posibilitarla con otras Administraciones autonómicas y con la Administración central, para un mejor aprovechamiento de los recursos humanos".

**4. Euskal Legebiltzar Talde Popularrak egindako legez besteko proposamena, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Erlijio irakasleak Euskal Autonomia Erkidegoari transferitzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0168]**

ES eta ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

33/2010
"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari ondokoa eskatzen dio:

1. Ahalik eta lasterren, Espainiako Gobernuarekin adostu dezala Euskal Eskola Publikoko Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Erlijio irakasleak transferitzea.

2. Irakasle horiei ere IRALE programako liberazioak eskaini diezazkiela, 2010-2011 ikasturtetik aurrera, hezkuntza-sistemaren beharrizanek eskatutako hizkuntza-eskakizunak egiaztatu ditzaten".

**4. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, relativa a la transferencia a la Comunidad Autónoma vasca del colectivo del profesorado de Religión en Infantil y Primaria. [09\11\02\01\0168]**

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos SV y PV

33/2010
"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco:

1. A que, en el plazo más breve posible, se acuerde con el Gobierno de España la transferencia del colectivo de profesores y profesoras de Religión de Educación Infantil y Primaria de la Escuela Pública Vasca.

2. A que este colectivo sea admitido en las liberaciones del programa IRALE desde el curso 2010-11, para facilitar que acrediten los perfiles lingüísticos acordes con las necesidades del sistema educativo".

**5. Euzko Abertzaleak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, etxeko langileei buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0173]**

EA-NV, ES eta ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

34/2010
"Eusko Legebiltzarrak 2007ko martxoaren 15eko osoko bilkurak etxeko langileei buruz hartutako akordioa berretsi egiten du eta

Espainiako Gobernuari eskatzen dio:

1. Toledoko Itunaren gomendioei jarraituz, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sar ditzala gaur egun etxeko lanen Erregimen Berezian dauden pertsona guztiak, euren eskubideak eta gizarte-babesa modu nabarmenean hobetzeko.

**5. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Nacionalistas Vascos, sobre las empleadas del hogar. [09\11\02\01\0173]**

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos NV, SV y PV.

34/2010
"El Parlamento Vasco ratifica el acuerdo adoptado en la sesión plenaria de 15 de marzo de 2007 en relación a las empleadas de hogar e insta

Al Gobierno de España a:

1. Atendiendo a las recomendaciones del Pacto de Toledo, integrar en el Régimen General de la Seguridad Social a todas aquellas personas que están actuamente en el Régimen Especial de las empleadas de hogar, de cara a mejorar sustancialmente sus derechos y protección social.

2. Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritzak kontrola eta azter dezala etxeko langileen sektoreko lanpostu-agentzien jarduera.

3. Ekin diezaiola 2010ean zehar etxeko langileen lan-kontratuak, lanetik kaleratzeko baldintzak eta lanaldia hobetzeari eta, oro har, etxeko langileek Gizarte Segurantzarekin duten erlazioa hobetzeari.

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Egin dezala etxeko-langileek Euskadin duten egoerari buruzko ikerketa berezi bat.

2. Ezen, politika aktiboen transferentzia gauzatzen denean, bultza dezala laneko zerbitzu publikoen bitartekaritza etxeko langileen arloan, jakinaraz diezaiela enplegatuei eta enplegatzaileei dituzten kontratazio-betebeharrak eta eskubideak, eta azter dezala etxeko langileen arloan ezkutuko ekonomia azaleratzeko neurriak hartzeko aukera".

2. Que la Inspección de Trabajo y Seguridad Social controle e investigue la actividad de agencias de colocación en el sector de las empleadas de hogar.

3. Que a lo largo de 2010 aborde mejoras en lo relacionado con el contrato de trabajo, las condiciones de despido, la jornada laboral y en general las relaciones con la Seguridad Social de las empleadas del hogar.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a:

1. Elaborar un estudio específico sobre la situación de las empleadas del hogar en Euskadi.

2. Que al materializarse la transferencia de ls políticas activas de empleo, se impulse la intermediación de los servicios públicos de empleo en e empleo doméstico y dfunda entre empleadas y empleadores sus derechso y obligaciones contractuales y que analice la aplicación de medidas que permitan aflorar la economía sumergida en el sector doméstico".

## 6. Euskal Sozialistak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, legealdi hasiera bakoitzean Eusko Jaurlaritzaren legegintza egutegia Eusko Legebiltzarrera bidaltzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0199]

ES, ETP eta Aralar taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

35/2010

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio legegintzaldi honetan legez arau dezala Gobernua osatu eta sei hilabeteko epean legegintza egutegia Legebiltzarrera bidaltzeko obligazioa. Legegintza egutegi horretan zehaztuko dira onartu nahi diren lege-proiektuak eta zein bilkura-alditan bidaliko zaizkion Legebiltzarrari, eta baita legegintzaldian zehar onetsi nahi diren Jaurlaritzaren planen egutegia ere".

## 6. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Socialistas Vascos, relativa a la remisión al Parlamento Vasco, al inicio de cada legislatura, del calendario legislativo del Gobierno Vasco. [09\11\02\01\0199]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos SV, PV y Aralar.

35/2010

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a regular por ley en la presente legislatura la obligación de remitir a la Cámara, en los seis meses siguientes a la constitución del Ejecutivo, el calendario legislativo, en el que se incluirán los proyectos de ley que se pretendan aprobar y el periodo de sesiones en el que se prevea su remisión al Parlamento Vasco, así como el calendario de planes del Gobierno que se quieran aprobar en el curso de la legislatura".

**7. Aralar legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, Egunkaria auziari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0203]**

ES eta Aralar taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

36/2010

"1. Eusko Legebiltzarrak, fiskalak akusazioak kendu ondoren, auzia behin betiko eta modu egokian bukatzeko desioa adierazten du, inputatuen absoluzioarekin, fiskalak adierazitako ildo beretik.

2. Era berean, Eusko Legebiltzarrak bere kezka adierazi nahi du aipatu epaiketan, Euskaldunon Egunkariaren itxieratik, inputatutakoek daukaten lan egoeragatik eta euren egoera pertsonalagatik".

**7. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Aralar, sobre el asunto Egunkaria. [09\11\02\01\0203]**

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos SV y Aralar.

36/2010

"1. El Parlamento Vasco, ante la retirada de las acusaciones por parte del fiscal, manifiesta el deseo de que el juicio concluya definitiva y satisfactoriamente con la absución de los imputados, en la línea apuntada por el Fiscal.

2. Asimismo, el Parlamento Vasco muestra su preocupación por la situación laboral y personal, desde el cierre de Euskaldunon Egunkaria, de los imputados en el citado juicio".

**8. Mistoa-Eusko Alkartasuna legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, hezkuntza-curriculumari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0213]**

ES eta ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

37/2010

"Eusko Legebiltzarrak babestu egiten du Hezkuntza Sailaren jarduna, hezkuntza-etapetako curriculuma arautzen duten dekretuen aldaketari dagokionez. Halaber babesten du eskola-elkarteak Euskadiko Eskola Kontseiluaren baitan burutu duen dekretu horiei buruzko eztabaida lasai eta eraikitzailea eta uste du emaitza horrek baliagarri izan behar duela aldaketa horri ekiteko".

**8. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-Eusko Alkartasuna, sobre el currículo educativo. [09\11\02\01\0213]**

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos SV y PV.

37/2010

"El Parlamento Vasco respalda la actuación del Departamento de Educación de modificar los decretos que regulan el currículo de las diferentes etapas educativas. Respalda, asimismo, el debate sereno y constructivo que sobre dichos decretos ha llevado a cabo la Comunidad educativa en el seno del Consejo Escolar de Euskadi, entendiendo que dicho resultado ha de ser útil en la confección de dicha modificación".

**9. Mistoa-Ezker Batua Berdeak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, zenbait itsas eremu babesteko proposamenari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0222]**

ES, ETP, Aralar, Mistoa-EA eta Mistoa-EB taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

38/2010

"1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari eskatzen die bultza dezatela itsasoko Natura 2000 Sarearen parte diren babes bereziko eremuak (BBE) babesteko proposamena, Europako legeek aurreikusitako epearen barruan.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio egin dezala oraingo legegintzaldia amaitu baino lehen EAEko kostaldea barne hartuko duen ikerketa bat, ingurumen aldetik zaintza berezia izateko modukoak izan daitezkeen eremuak ezartze aldera, horrela europar zein nazioarteko legeek ezarritako itsas eremu babestuen helburuak bete ahal izateko.

3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Estatuko Administrazio Orokorrarekin era koordinatuan aritu dadila, bai eta jarduketa hauen berri eman diezaiela gaur egun arlo honetan lanean ari diren instituzio zientifikoei, itsas ingurumenaren babeserako gobernuz kanpoko erakundeei eta euskal Arrantzaleen Kofradiei".

**9. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-Ezker Batua Berdeak, referente a propuesta de protección de áreas marinas. [09\11\02\01\0222]**

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos SV, PV, Aralar, Mixto-EA y Mixto-EB

38/2010

"1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco y al Gobierno de España a impulsar la propuesta de protección de las zonas de especial conservación (ZEC) que formen parte de la Red Natura 2000 marina, dentro del plazo previsto por la legislación europea.

2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que realice antes de finalizar la presente legislatura un estudio que incluya la costa de la CAV, con el fin de establecer las nuevas zonas que pueden ser objeto de especial conservación ambiental, de modo que se puedan cumplir los objetivos de áreas marinas protegidas establecidas por la legislación europea e internacional.

3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a actuar de manera coordinada con la Administración General del Estado, así como a hacer partícipes de las presentes actuaciones a las instituciones científicas que se encuentren trabajando actualmente en este ámbito, a las organizaciones no gubernamentales de protección del medio ambiente marino y a las Cofradías de Pescadores vascas".